

LITERATURA AHOZ AHO

AHOZko EUSKAL LITERATURArako BIDE BERRIak

NON: BAIONAn
Ereintza Euskaltegia AEK

NOIZ: uztailaren 9 eta 10ean
Ordutegia: 9:00-12:00 eta 14:00-17:00

Antolatzailea: [UEU - Udako Euskal Unibertsitatea](#).

Matrikula: [on-line](#) - (+34) 943 82 14 26 - i.iciar@ueu.eus
(Irati Iciar : Udako Ikastaroen arduraduna)

Irakaslea: [Ixabel MILLET](#).


Kondalaria, idazlea eta formatzailea.
Hendaian kokaturiko Bi'Arte elkarteko zuzendaria.

Aurkezpena

Bi'Arte elkarteak, bai Hezkuntza Ministerioko "Hezkuntza Artistiko eta Kulturala" programaren bitartez, bai TAP-NAP-en bitartez, EUSKAL LITERATURAREN hedapenerako lan egiten du. Bereziki bi arlotan eskeintzen ditu bere proiektuak: alde batetik, IPUINAK, betikoak eta gaurkoak, (ahozko literatura eta arte bizia) eta literatura idatzia (irakurketa, idazkera tailerrak, etab.); eta bestetik, EUSKAL MITOLOGIA, ipuin mitologikoak abiapuntu gisa.

Ikastaro honen xedea, euskal ahozko literatura zein idatzizkoa eskoletara zein mediaketara eramateko Bi'Arte elkarteak sortutako "LIBURU IBILTARIA" izeneko proiektuaren inguruan izanen da. Egitasmo horren xedea euskarazko eta euskal literaturarekin loturik diren animazio-irakurketak eskeintzea da.

Horretarako, egitasmo barnean, jendeak prestatu, aholkatu eta laguntzea eskeiniko du elkarteak.



Helburua

Elkar lotuak diren LIBURU IBILTARIAK, literaturaren transmisiorako den egistamoaren bi alderdiak ikustea eta jorratzea:

- Literatura: kultura eta idazkera.
 - Ahozkoasuna: kultura eta komunikazioa.
-

Edukiak

1.- SARRERA

- Bi'Arte elkartearen eta LIBURU IBILTARIAK egitasmoaren aurkezpena
- Ipuinen historia, ezaugarriak eta definizioa
- Ahozko literatura vs idatzizko literatura

2.- IDATZETIK KONTATZERA

- Ipuin idatziak eta ahozko ipuinak
- Idatzitako ipuin bat kontatzeko prestatu
- Liburuaren erabilera
- Begiradaren garrantzia

3.- AHOZKOTASUNA (irakurriz zein kontatuz)

- Ahozkoasunaren ezaugarriak
- Arnasketa diaframatikoa eta ahotsaren modulazioa
- Sentimenduen adierazpena
- Objektuen erabilera

4.- AMAIERA

- Etorkizunari begira, zer?
 - Proposamen batzuk
-

Nori zuzendua

Istorkioak, liburuak, literatura, ahozkoa zein idatzizkoa... maite eta haien transmisiorako prestaketaren bidean urrats bat eman nahi duen orori.

TAP delakoetan animazio-irakurketak egiteko prestaketa izan nahi du.

Metodologia

Praktikan oinarritutako lan-metodologia proposatuko da: ikastaroko partaideei ipuinak irakurri eta kontatzeko gonbita luzatuko zaie eta elkarri iradokizunak egin eta iritzia emanez, trebatze bidean urrats bat emanen da.
